



## Merkataritza eta ibilgailuen konponketa sektoreko afiliatuak Euskal A.E. 2016 - 2020



Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkio.

2020ko bigarren hiruhilekoan, handizkako eta txikizkako merkataritza sektorean; ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa, 133.797 afiliatu zeuden guztira Gizarte Segurantzaren laneko alta emanda. EAEko ekonomia osoari dagokionez, lan-altan dauden afiliatuen % 14,2 dira. Hiruhilekoko batez besteko afiliatukopuruaren urtetik urterako aldakuntza  $-\% 3,04$  jaitsi da (2020ko 2. hiruhilekoa, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta).

Merkataritzaren sektoreak EAEko ekonomiak baino portaera okerragoa du; izan ere, sektore horretan afiliazioak 963.249 izatetik 939.677 izatera igaro ziren aldi horretan, eta urte arteko tasan  $-\% 2,4$  jaitsi zen.





Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkio

**Merkataritza sektoreko afiliatuak, azpisektoreen arabera**

- Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa
- Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunak eta motozikletak izan ezik
- Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunena eta motozikletena izan ezik

Horien guztien artean, langile gehienei lana ematen diena txikizkako merkataritza da, afiliatuen % 60,4 biltzen baititu.




Merkataritzaren eta konponketaren sektoreko afiliazioak, kopuru absolutuetan, 4.201 afiliatu gutxiago izan zituen, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Beherakada handiena txikizkako merkataritzak izan du, 2.862 afiliazio gutxiagorekin; ondoren, handizkako merkataritzak (-1.111) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak (228 afiliatu gutxiago).

2020ko bigarren hiruhilekoan, enpleguak merkataritzan izandako urte arteko aldakuntza-tasa % -3,04 jaitsi zen. Datuak bereizita aztertuta, ibilgailuen salmenta eta konponketa sektorea % 1,7 jaitsi zen, handizkako merkataritza % 2,7 eta, azkenik, txikizkako merkataritza % 3,4.


Merkataritza eta ibilgailuen konponketa sektorean, bere osotasunean hartuta, enpleguak behera egin zuen soldatapekoen taldean (-% 3,0) eta autonomoen taldean (-% 3,1).

## Txikizkako merkataritzaren sektoreko afiliatuak, lurralde historikoen arabera

Txikizkako merkataritzaren banaketa, ehunekotan, lurralde historikoaren arabera  
2020ko 2. hiruhilekoa



Urte arteko aldakuntza afiliazioaren kopuru absolutuetan  
2020ko 2. hiruhilekoa, 2019ko aldi berarekin alderatuta



## Afiliazioen beherakada erregistratu da 3 lurralde historikoetan

Lurralde Historikoen araberrako afiliazioen banaketari dagokionez, Araba afiliazioen % 13,4 da, Bizkaia % 56,4 eta Gipuzkoa % 30,2.

Bizkaian, txikizkako merkataritzan lan egiten duten pertsonen % 40,3 autonomoak dira, Gipuzkoan ( % 30,2) eta Araban ( % 23,4) baino gehiago.

Arabaren urte arteko aldaketa negatiboak izan ditu afiliazioari dagokionez: 187 afiliazio gutxiago; Gipuzkoan, 1.044 afiliazio gutxiago; eta Bizkaian, 1.630 gutxiago.

Enplegu-irabazien ehunekoei dagokienez, Araban -% 1,7ko beherakada izan da. Gipuzkoan -% 4,1 jaitsi zen, eta, azkenik, Bizkaian -% 3,5.

## ANEXO ESTADISTICO // ERANSKIN ESTADISTIKOA

EUSKAL A.E. C.A. de EUSKADI	Datu absolutuak / Datos Absolutos			Δ 2T 2020/ 2T 2019		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
VENTA Y REPARACIÓN DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	13.169	10.005	3.164	-1,7	-1,4	-2,8
COMERCIO AL POR MAYOR E INTERMEDIARIOS DEL COMERCIO, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	39.902	31.892	8.010	-2,7	-2,4	-3,8
COMERCIO AL POR MENOR, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	80.726	52.482	28.244	-3,4	-3,7	-3,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>133.797</b>	<b>94.379</b>	<b>39.418</b>	<b>-3,04</b>	<b>-3,0</b>	<b>-3,1</b>
<b>TOTAL</b>	<b>14,2</b>					
<b>EKONOMIA GUZTIRA</b>	<b>939.677</b>	<b>770.570</b>	<b>169.107</b>	<b>-2,4</b>	<b>-2,6</b>	<b>-1,7</b>
<b>Total ECONOMÍA</b>						
	% bertikalak %verticales			% horizontalak % horizontales		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
VENTA Y REPARACIÓN DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	1,4	1,3	1,9	100,0	76,0	24,0
COMERCIO AL POR MAYOR E INTERMEDIARIOS DEL COMERCIO, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	4,2	4,1	4,7	100,0	79,9	20,1
COMERCIO AL POR MENOR, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	8,6	6,8	16,7	100,0	65,0	35,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,2</b>	<b>12,2</b>	<b>23,3</b>	<b>100,0</b>	<b>70,5</b>	<b>29,5</b>
<b>TOTAL</b>						
<b>EKONOMIA GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>82,0</b>	<b>18,0</b>
<b>Total ECONOMÍA</b>						

Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkie

## Txikizkako merkataritzako afiliazioa, lurralde historikoen arabera

	Datu absolutuak / Datos Absolutos			Δ 2T 2020/ 2T 2019		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
Araba	10.841	8.302	2.540	-1,7	-1,3	-2,9
Bizkaia	45.535	27.196	18.339	-3,5	-3,8	-3,0
Gipuzkoa	24.350	16.985	7.365	-4,1	-4,6	-3,0
<b>Euskal E.A.</b>	<b>80.726</b>	<b>52.482</b>	<b>28.244</b>	<b>-3,4</b>	<b>-3,7</b>	<b>-3,0</b>
<b>C.A. de Euskadi</b>						
	% bertikalak %verticales			% horizontalak % horizontales		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
Araba	13,4	15,8	9,0	100,0	76,6	23,4
Bizkaia	56,4	51,8	64,9	100,0	59,7	40,3
Gipuzkoa	30,2	32,4	26,1	100,0	69,8	30,2
<b>Euskal E.A.</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>65,0</b>	<b>35,0</b>
<b>C.A. de Euskadi</b>						

Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkie

Informazio iturria: Gizarte Segurantzako datuak, Estatistika Organoak landutakoak. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkie.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Estatistika Organoa